

“Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia”



Mirari Alberdi
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Eusko Jaurlaritza

Gasteiz, 2006ko azaroaren 16a

Eusko Jurlaritzak azken 20 urteotan lanean jardun du Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) toponimiaren biltze-, arautze- eta normalizazio-lanetan. Besteak beste, honako lanok izan ditugu: gure lurraldeko toponimoen bilketa bultzatzea; toponimiarako arautze-lanak egitea; araututako toponimoei zabalkundea ematea; administrazioek eta enpresek erabiltzen dituzten toponimoen erabileraren jarraipena egitea; udalerri, kontzeju, biztanle-gune eta abarren izenak ofizialtzeko sustapen-lana, eta abar.

Lan hauen guztien abiapuntua Euskararen Erabilera Arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legean dago, eta zehazkiago 10.1 artikulua finkatzen duen irizpidean. Irizpide honek, besteak beste, hauxe dio: "Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, geografia-gorabehera, hiribide eta, oro har, toki-izen guztien izen ofizialak Jurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan, eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez."

Jakina, legeek ez dute berez funtzionatzen eta kasu honetan (Euskararen Legean) are gutxiago. Administrazioetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik batez ere, (baina beste erakundeak ahortzi gabe: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Diputazioak, udalak, kontzejuak, Euskaltzaindia) ahaleginak egin ditugu Legeak dioen hori betetze aldera.

Lan horien ondorio da gaur egun Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen toponimiako datu-basea. Bertan jasotzen dira azken 20 urteotan egindako lanen emaitzak. Gainera, datu-basea kontsultagai dago HPSren web orrian.

HPSk aurrerantzean bere datu-basea zuzentzen eta osatzen joateko asmoa du eta, horretarako, ezinbestekoak ditu beste administrazioen, Euskaltzaindiaren, ikerlarien eta, oro har, toponimiaren erabiltzaileen lankidetzak eta ekarpenak.

Toponimoen ofizialtze-lanari dagokionez, lehen-lehenik kasu bakoitzean eskumenak norenak diren ikusi behar da. Gure herriko egituraketa instituzionala aski konplexua da eta eskumen guztiak ez daude leku berean. Horrek gauzak zaildu egiten ditu noski, baina bestetik eragile gehiagoren inplikazioa eskatzen du eta horrek baditu bere alde onak ere, hartzen diren erabakiak ez baitira goitik beherakoak izaten normalean; horri esker, hartzen diren erabakiak errotuago gelditzen dira, atxikimendu handiagoa izaten dute hartu diren tokietan. Eskumenak argi banatuta dauden kasuetan, administrazio bakoitzari dagozkion toponimoak ofizialtzeko sustapen-lanarekin jarraituko du HPSk. Esate baterako, udalerriaz azpiko biztanle-guneen izenak ofizialtzeko araudia emana dute Arabako Biltzar Nagusiek eta, araudi horren arabera, kontzejuen kasuan, azken hitza kontzejuak berek dute. Kontzejuak, ordea, ez dute gehienetan gai honi heltzeko behar den

irizpiderik eta are gutxiago esperientziarik. Puntu horretan HPStik eskaintzen dugu laguntza, behar dituzten tramiteak egiten orientatzeko edo irizpideak argitzeko. Bestelako toponimo batzuen kasuan (ibaiak, mendiak, etab.) gaur egun eskuartean dugun EAEko Izendegiak eskainiko digun aukera baliatu nahi dugu ofizialtzeari begira urratsak ematen hasteko.

Gai hauek guztiak hiru puntu nagusitan bildu ditut:

- 1.-1986tik hona Eusko Jaurlaritzaren ekimenez toponimiaren alorrean egindako lanen historia.
- 2.-EAEko toponimiaren datu-basea eta datu-base hori kontsultatzeko aplikazioa.
- 3.-Toponimia-lanerako koordinazioa.
 - 3.1. HPSren datu-basea guztion artean zuzendu, eguneratu eta osatu.
 - 3.2. Espainiako Izendegia (Nomenclátor Geográfico de España) eta EAEko Izendegia (Nomenclátor de la Comunidad Autónoma Vasca).

Has gaitezen bada, lehen puntuarekin:

1.- 1986tik hona Eusko Jaurlaritzaren ekimenez toponimiaren alorrean egindako lanen historia

- 1986-87: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Garraio Sailak Deustuko Unibertsitateko Deikerrekin sinatutako hitzarmenen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia kartografiarako normalizatzeko proiektua jarri zen abian. Horretarako, Bizkaiko lurraldearen egoeraren azterketa egin zen eta lurralde oso baten toponimia-bilketa eta arautze-lana egiteko metodologia landu zen. Ondoren, Bizkaiko toponimiaren bilketa eta arautze-lana burutu zen (1: 5000 eskalan) eta lanaren emaitzarekin datu-base informatikoa sortu zen. Lurralde Antolamendu Sailak argitaratu zituen EAEko begetazio-mapetan erabili ziren lehendabiziko aldiz araututako toponimo horiek.
- 1990-1993: Arabako eta Gipuzkoako toponimiaren bilketa eta arautze-lana. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari urriaren 6ko 306/1987 Dekretuak ezartzen zizkion egitekoak zirela eta, toponimia finkatzeko lanetan parte hartzen hasi zen eta gidaritza hartu zuen gai honetan. Horren harira, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritzak,

Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena izenpetu zuten Deikerrekin kartografia ofizialerako 1:5000 eskalako toponimia osatu eta arautzeko. Arabako lanaren barruan Trebiñuko lurraldeko toponimia ere landu zen. Lan horretan, estraineko aldiz, koordenatu geografikoak erantsi zitzaizkien toponimoei eta toponimoen gaztelaniazko bertsioa ere landu zen. Azken emaitza Bizkaiko toponimia jasotzen zuen datu-basean txertatu zen.

- 1996: Euskararen Aholku Batzordearen barruan Toponimiako Batzorde-atal Berezia sortu zen (156/1996 Dekretua, ekainaren 18koa) Euskal Autonomia Erkidegoan toponimiaren alorrean egin beharreko lanak zehazteko eta lan horien artean lehentasunak ezartzeko.
- 2000: Toponimiako datu-basea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren web gunean txertatu zen.
- 2000-2002: toponimia arautzeko hizkuntza-arau berriak prestatu ziren. 1986an, Bizkaiko toponimia-lana egin zenean, hizkuntza normalizaziorako edo arautze-lanerako irizpideak prestatu zituen Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuak, Alfontso Irigoien euskaltzaina zenaren zuzendaritzapean. 1990-93an egindako Arabako eta Gipuzkoako lanean ere irizpide horiek aplikatu ziren. Beranduago, 2000. urtean, Euskaltzaindiak *Toponimia Txikia Arautzeko Irizpideak* izeneko liburuxka argitaratu zuen, *Euskera* aldizkariaren separata batean. Dokumentu hau Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak onartua zen. Irizpideok, alabaina, ez zetozen guztiz bat Deikerren lanean aplikatu zirenekin. Horregatik, Euskaltzaindiak eta HPSk arautegien bateratze-saioak egin zituzten 2000-2002 urteetan zehar. Arautegi bateratua Bizkaiko eta Arabako berrikusketa-lanetan aplikatu zen, beranduago, lan hauek egin zirenean, eta aplikatzen jarraituko da aurrerantzean egingo direnetan ere.
- 2001: *Izen geografikoen glosarioa* argitaratu zen. 2000. urtean Euskararen Aholku Batzordearen barnean dagoen Toponimiako Batzorde-atal Bereziak "Geografia-toponimiaren hiztegitxo" egiteko premia adierazi zuen. Euskal Herriaren eremuan hainbat entitate geografiko aurki dezakegu (beti aipatzen direnak: mendiak, ibaiak, iturriak, lepoak, ... eta baita beste hainbat ere: amildegiak, dorretxeak, eskolak, gasolina-zerbitzuguneak, hilerriak, hiri-auzoak, leizeak, teknologia-parkeak, ...). Bada, normalizazio-lanetan beharrezkoak suertatzen diren izen generiko horien euskarazko izendapenak finkatu eta glosario bat osatu nahi izan zen. Lan hori UZEIren laguntzarekin eta HPSk sortutako Normalizazio-Batzordearen bitartez egin zen.

Batzordean hizkuntzalariak zein geografiako adituak bildu ziren. Entitate geografikoen zerrenda finkatzeaz gainera, bakoitzaren definizioa ere landu zen.

- 2002: Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-atal Bereziak toponimia alorreko ikerketa-lanak nola bideratu eta zein urrats jarraitu azalduko zuen eskuliburua egitea lehentasun-maila handiko lantzat finkatu zuen 2000. urtean. Horren ondorio da *Toponimia eta kartografia: oinarrizko eskuliburua* izeneko metodologia-eskuliburua, Nerea Mujika andreak Kultura Sailaren enkarguz idatzia eta sail honek 2002. urtean argitaratua. (Gai hau Deustuko Unibertsitateko Nerea Mujikak berak azalduko du sakonago gaur goizean horretarako bereziki emango duen hitzaldian).
- 2003: Bizkaiko toponimiaren berrikusketa egin zen, bilketa- eta arautze-lan berria: *Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1:5000 eskalarako toponimia-lana*. Bizkaian egindako aurreko lanean zenbait hutsune antzeman ziren (toponimoen dentsitate murrizta, gaztelaniazko bertsioaren falta, koordenatu geografikorik eza, arautze-lanerako irizpide zaharkituak, ...). Hori dela eta, gabezia horiek zuzentzeko, Bizkaiko toponimiaren ahozko bilketa berria, dokumentazio-lana eta arautzea egin zen. Toponimoen arautze-lana Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide baten gidaritzapean egin zen. Lan honetan dokumentazio-lan sakona egin zen. Izan ere, Bizkaiko lana izan zen 1986-87an Eusko Jaurlaritzak abian jarritako lehendabizikoa eta zenbait hobekuntza egin beharra ikusi zen, besteak beste, dokumentazio-lanean. Horregatik, Bizkaiko toponimiaren arautze-lanetarako baliagarri izan zitezkeen dokumentu-iturri berriei buruzko balorazio-txostena kontratatatu zuen HPSk 1999. urtean. Txosten horretan dokumentu baliagarrienak, interesgarrienak izan zitezkeenak zehaztu ziren.
- 2005: Arabako toponimiaren berrikusketa-lana. 1:5000 eskalako kartografiarako toponimia finkatu zen. Ez zen ahozko bilketarik egin. Dokumentazio-lanean sakondu zen eta normalizazio geografikoa zein arautze-lana berregin ziren. Gainera, Gasteizko hiri-toponimia ere landu zen. Toponimoen arautze-lana Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide baten gidaritzapean egin zen. 1990-1993 epean egin zen lanean bezala, 2005ekoan Trebiñuko lurraldeko toponimia ere landu zen.
- 2006: *Toponimoak kartografian txertatzeko irizpideak* izeneko dokumentua. Txosten honen helburua zenbait irizpide finkatzea da, toponimia mapetan nola errotulatu erabakitzen laguntzeko. Oinarrizko dokumentua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan landu zen eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin eta Euskaltzaindiarekin

lankidetzan osatu da. (Gai hau HPSko Ruben Ramirez lankideak azalduko du sakonago gaur goizean horretarako bereziki emango duen hitzaldian).

- 2007: Gipuzkoako toponimiaren berrikusketa-lana. 1:5000 eskalako kartografiarako toponimia finkatzeko lana Eusko Jaurlaritzak lehiaketa publikoaren bidez kontratatuko du. Lan horrekin Gipuzkoako lurraldeko toponimiaren dokumentazio-lanean sakonduko da alde batetik eta, bestetik, normalizazio geografikoa zein arautze-lana egingo dira. Kasu honetan ere, toponimoen arautze-lana Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide baten zuzendaritzapean egingo da. Lan honen kontratazioa aurten egingo da eta lana 2007an burutuko da.
- 1995-2006: EAEko udalerrien eta udalerrietako auzo eta kontzejuen izen ofizialak aldatzeko lanean aritu da etengabe Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 1995. urtean hainbat eta hainbat ziren euskal jatorria izanik ere, euskal bertsio egokia ofizialdu gabe zuten auzoak eta kontzejuak. HPS, Euskaltzaindiak araututako izenak kontuan izanik, harremanetan jarri izan da EAEko udal guztiekin eta baita Arabako administrazio-batzarrekin ere, izen ofizialetan egin beharreko aldaketan berri emanez, jarraitu beharreko prozedura azalduz eta bere lankidetzaz eskainiz. Lan honekin hasteko, lehen urratsa EAEko udal guztiekin harremanetan jartzea eta bakoitzarekin bere udalerriko auzoen izen ofizialen zerrenda finkatzea izan zen. Ondoren, Euskaltzaindiak izen bakoitzarentzat proposatzen zuen forma arautua berrikusi eta landu zuen. Lan hauen emaitza argitalpen batean jaso zen 2001. urtean: *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak*.

Liburu honetan eskaintzen den informazioa, gaur egun, erabat zaharkituta dago. Hainbat eta hainbat izan dira, alde batetik, izen ofiziala aldatu duten udalerrak, kontzejuak eta auzoak eta, bestetik, Euskaltzaindiak berak ere aldatu egin ditu zenbait proposamen, garai hartakoak berrikusi ondoren. Izen ofizialei buruzko informazio eguneratua HPSren web gunean aurki daiteke. Euskaltzaindiaren azken proposamenak, berriz, erakunde honen web orrian kontsultatu daitezke, Euskal Onomastika Datutegiaren bitartez (EODA) (www.euskaltzaindia.net).

EAEko zenbait biztanle-entitatearen izen ofizialak Euskararen Legeak finkatutako irizpideari jarraituz aldatzeko sustapen-lan handia egin du HPSk hiru lurraldeetan, eta, bereziki, Araban.

2.-EAEko toponimiaren datu-basea eta datu-base hori kontsultatzeko aplikazioa

Arestian aipatu ditugun lan horien guztien emaitza datu-base handi batean sartuta daukagu. Datu-base horretan jasotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko milaka toponimo. Kudeaketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak darama. Jakina, datu-base erraldoi gehienek bezala, egitura aski konplexua du. Aldaketak egin behar diren bakoitzean lan handia izaten da gauzak doitzen. Datutegia eguneratzeko, osatzeko eta zuzentzeko aplikazioa ere diseinatu dugu.

Datu-base horretan jasotzen den informazioaren zati handi bat kontsultagai jarria du HPSk interneterako aplikazio baten bitartez. Horrela, edozein erabiltzailek EAEko toponimiari buruzko informazioa lor dezake bertan. Honako hau da kontsultak egiteko erabili beharreko helbidea:

www.euskadi.net/euskara_toponimia

Bi kontsulta-modu eskaintzen dira: kontsulta arrunta ("kontsultatu datu-basea" funtzionalitatea) eta "kontsulta aurreratua".

Kontsulta arruntaren bitartez, toponimoen forma normalizatua edo arautua aurki daiteke, euskarazko bertsioan zein gaztelaniazkoan, eskatzaileak kontsulta egiteko aukeratzen duen hizkuntzaren arabera. Bertsio batean zein bestean toponimoaren osagai espezifikoa berbera da; osagai generikoa da aldatzen dena (adib.: "*Oiz mendia*" eta "*Monte Oiz*"). Bilaketak hiru eratara egin daitezke:

- 1.-Toponimoaren arabera: toponimoaren zatiren bat aukeratuta (izenaren hasiera, tarteko zatia edo amaierakoa).
- 2.-Udalerriaren arabera: udalerri bat aukeratuta.
- 3.-Entitate geografikoaren arabera: entitate geografiko bat aukeratuta (mendia, basoa, erreka, aintzira, errota, ...)

Kontsulta aurreratuaren bitartez, toponimoen forma arautuaz gainera, ahoz jasotakoak eta dokumentu idatzietatik hustutakoak aurkituko dira. Kontsulta-mota hau egin ahal izateko, aldezturik erabiltzaile aurreratuaren fitxa bete behar da; ondoren, HPSk erabiltzaile-izena eta pasahitza emango dizkio eskatzaileari eta, handik aurrera, kontsulta aurreratuaren aukera erabili ahal izango du.

Bi kontsulta-mota hauetan, arruntean zein aurreratuan, egindako kontsultaren emaitzetan muga ezartzen du sistemak. Hau da, aldikoan datu-kopuru handia kontsultatu nahi izanez gero, sistemak ez du onartuko eta kontsulta mugatu egin

beharko da. Bestela, aukera eskaintzen du sistemak egin nahi den kontsulta hori HPSri eskatzeko. Bigarren aukera hau hautatuz gero, "Eskaera bereziak" funtzionalitatea erabili behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateen izen ofizialak kontsultatzeko aukera ere eskaintzen du aplikazioak. Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeetan udalek finkatu dituzten izen ofizialak jasotzen dira. Araban, berriz, administrazio-batzarrak (edo kontzejuak) diren biztanle-guneen kasuan, haiek finkatu dituzten izenak jasotzen dira. Administrazio-batzarrak ez diren kasuetan, udalak edo dagokion administrazio-batzarrak erabakitako izenak eskaintzen dira.

Azkenik, HPSri oharrak eta iradokizunak bidaltzeko aukera eskaintzen du aplikazioak. Sailburuordetza honetan badakigu une honetan ditugun tresnak eta eskaintzen dugun informazioa hobetu daitezkeela eta horixe da, hain zuzen ere, gure eguneroko egitekoetako bat: datu-basea etengabe hobetzen joatea. Horretarako, lagungarria izango zaigu toponimiaren erabiltzaileen ekarpena. Guk, barrutik, ikusten ditugu hobetu beharreko gauzak baina ziur gaude erabiltzaileek, kanpotik, gauza gehiago ikusiko dituztela. Horren berri guri ematea estimatuko genuke, prest baikaude eskaintzen duguna hobetzen lagunduko digun edozein ekarpen kontuan hartzeko; erabiltzaileek egingo dizkiguten oharrak, zuzenketak, iradokizunak, kritikak gogo onez jaso, aztertu eta baloratuko ditugu.

Bukatzeko, "Loturak" eta "Toponimia eta Kartografia" aukerak ditugu. "Loturak" aukeraren bitartez, beste webgune batzuekin egiten da lotura (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskaltzaindia, Instituto Geográfico Nacional-a, etab.). "Toponimia eta Kartografia"-n, berriz, bi gai hauekin lotutako zenbait argitalpen eta dokumentu kontsultatu ahal izango dira.

3.-Toponimia-lanerako koordinazioa.

Begi bistakoa da toponimia-lanetarako hainbat erakunderekin lankidetzan jardutea ezinbestekoa zaigula. Orain arte Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin, foru aldundiekin, udalekin, Euskaltzaindiarekin, Instituto Geográfico Nacional-arekin, ... aritu izan gara, neurri batean edo bestean, lanean. Aurrerantzean lankidetzak honetan sakondu egin nahi genuke, agente hauekin guztiekin harremanak sendotuz eta, aldi berean, errazagoak eginez.

Bide honetan, martxan jartzeko bi proiektu garrantzitsu ditugu esku artean:

3.1. HPSren datu-basea guztion artean zuzendu, eguneratu eta osatzeko egitasmoa.

HPSk interes handia du bere toponimiako datu-basea zuzentzeko, eguneratzeko eta osatzeko, hitz bitan esanda, etengabe hobetzeko. Izan ere, uste dugu datu-base hau erreferentzia-puntua izan beharko litzatekeela EAEko toponimiaren alorrean lan egin nahi duen edo toponimia horren inguruan informazioa lortu nahi duen ororentzat. Gure helburua datu-base hau orokorra izatea da, guztion artean hobetuko duguna eta guztiontzat erreferentzia eta toponimo arautuen iturri bakarra izango dena. Hobetze-lan hori egin ahal izateko, ezinbestekoa dugu toponimialanak egiten dituztenen ekarpena. Azken urteotan hainbat udalek egin dituzte euren udalerrietako toponimiaren azterketak eta lan horiek oso baliagarriak izan daitezke gure datu-basea aberasteko eta zuzentzeko.

Hori dela eta, edozein toponimia-bilketa eta arautze-lan egiteko asmoa duten guztiei HPSk datu-basean duen informazioa eskaintzen die. Horrelakoetan, hasteko, HPSri asmoaren berri eman behar zaio. Honek aztergai izango den eremu geografikoari dagokion informazioa ateratzen du bere datu-base orokorretik eta eskatzailearentzako datu-basea sortzen du. Lana egin ondoren, haren emaitzak HPSri bidaltzea eskatzen da, beti ere, datu-base handiaren egitura errespetatuz. Azkenik, bueltan jasotako informazio horren zuzentasuna bermatu nahirik, arautze-lana Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean egitea eskatzen du HPSk.

3.2. Espainiako Izendegia (Nomenclátor Geográfico de España) eta EAEko Izendegia (Nomenclátor de la Comunidad Autónoma Vasca).

Estatu mailan, bada “Nomenclátor Geográfico de España” (NGDE) izeneko proiektua. Proiektu hori Dirección General del Instituto Geográfico Nacional delakoaren gidaritzapean egiten da. Proiektu handia bezain interesgarria da, baita geuretzat ere, ezin baita ukatu gure lanei proiektzio zabalagoa eman ahal diela. Egitasmo hori gauzatzeko, eredu bat finkatu da ezaugarri teknikoak eta kontzeptualak landuz. Gainera, toponimia-arloan eskumenak dituzten erakundeen lankidetzak bilatu dute, hau da, autonomia-erkidegoei euren nomenklatorrak gauzatzeko aukera eman diete. Hori dela eta, institutu hori harremanetan jarri da Eusko Jaurlaritzarekin bertan gure erkidegoko izendegia ere egin dadin. Gure nomenklatorra Estatukoan txertatzea litzateke helburua; horrela, hango eta hemengo datu-baseetan erreferente bera eta arautua egongo litzateke. Nolanahi ere, kolaborazio bide hori hasi besterik ez da egin. Oraingoz lankidetzak nola bideratu aztertzen ari gara.